



AXULAR LIZEOKO HAUR DANBORRADAREN BARNE ARAUDIA

Axular Lizeoko Haur Danborrada ikastolaren laguntza eta babesari esker aurrera eramaten bada ere, antolakuntza orokorraren ardura Antolakuntza Batzordearena da. Batzorde hau ikasleen gurasoez osatua dago, aurrerago 5. Artikuluan zehazten den moduan.

2019ko urriaren 29an, Donostian elkartu gara Axular Lizeoko Haur Danborradako Antolakuntza Batzordeko partaideak, estatutua errebisatu eta eguneratzeko.

1go ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEAK

Axular Lizeoko Haur Danborradak berdintasun legea errespetatuko du momenturo.

Axular Lizeoko Haur Danborradaren konpainia 80 haurrek osatuko dute. Bera eraketa ondorengoa da:

- 8 Kantinera
- 7 Gastadore
- 24 Danbor
- 36 Upel
- Danbor Nagusia
- Upel Nagusia
- Banderatua
- Danborren Kaboa
- Upelen kaboa

Kantinera eta Gastadoreak LH-ko 2. Mailako ikasleak izango dira eta hautaketa zozketa bidez egingo da.

Danborrak eta upelak LH-ko 6. mailako ikasleak izango dira. Hauekin konpainia osatuko ez balitz, DBH 1eko ikasleek izango dute lehentasuna eta oraindik osatu gabe geratuko balitz, LH-ko 5. mailako ikasleekin osatuko litzateke.

Karguak batzordeko arduradunen irizpidearen arabera esleituko dira.

Batzordeko partaideen seme-alabek Haur Danborradan, inongo zozketarik gabe, parte hartzeko eskubidea dute.

2. ARTIKULUA: PREZIOA ETA ORDAINKETA

Parte-hartzaile guztiek ordainduko dute aurrezarrirako kuota. Kobranta ikastolak egingo du urtarrileko errezioboarekin batera. Kuota honekin Danborrada aurrera atera dadin sortzen diren gastu eta beharrak ordaintzeko erabiliko da; hala nola, materialaren mantenua, haurren beharrak etab.

Batzorde-kideen seme-alabek ere ordaindu behar dute aipatutako kuota.

Kuotaren zenbatekoa ez da itzuliko antolakuntzak ezarritako egunean Danborradan ateratzen ez den kasuetan, ez eta berau bertan behera geratuko balitz ere.

3. ARTIKULUA: ENTSEGUAK

Entseguetarako plangintza orokorra Antolakuntza Batzordeak adostu eta ezarriko du eta doakionari jakinaraziko dio.

Justifikatu gabeko 2 asistentzia falta edota entseguetako jarrera desegokia Danborradatik at uzteko arrazoi izango dira. Sortutako hutsuneak itxaron zerrendako hurrekin beteko dira.

4. ARTIKULUA: JANTZIAK ETA MATERIALA

Jantziak, eta oro har materiala, ikastolarenak dira.

Parte-hartzaile bakoitzari dagokion jantzia esleitu zaionean, familien eginbeharra izango da hauek, itxura egokia izan dezaten, moldatzea baina, inolaz ere aldaketa iraunkorrik egin gabe.

Parte-hartzaile guztiek itxura uniforme bat aurkez dezaten, derrigorrezkoa izango da bakoitzak hurrengo elementuak soinean eramatea:

- Zapata beltzak, "Donostia Festak"-en araudiari jarraituz.
- Panti zuriak (marrazkirik gabeak eta leotardoak ez direnak).
- Kotoizko eskularru zuriak.

Haur bakoitzari Danborrada egunerako bere jantzia jakinarazitako datan eskura emango aurretiaz ongi probatu ondoren.

Mesedez eskatzen diegu parte-hartzaile zein familiei, jantzien narriadura ekidin nahian, ez dezaten jantzia desfiletik at erabili.

Jantziak atxikita daramaten fitxan zehazten diren jarraibideak zehatz-mehatz jarraituta garbitu behar dira ikastolara itzuli aurretik. Antolakuntza Batzordeak jakinarazitako egunean ikastolara itzuli beharko dira jantziak egoera ezin hobean, esekigailuan zintzilikatuta eta dagokion zorroan babestuta.

Erabilera okerragatik edota arduragabekeriagatik gertatutako narriadura kasuetan, familiak ordaindu beharko du jantziaren konponketa nahiz garbiketaren zenbateko osoa.

5. ARTIKULUA: ANTOLAKUNTZA BATZORDEA.

Antolakuntza Batzordea gehienez ere 12 gurasok osatuko dute.

Batzordekide guztiek borondatez lan egingo dute eta ez dute dirurik kobratuko honengatik.

Batzordekide izateko gutxienez 5 urteko iraupena eskatuko da.

Batzordekideren batek batzordea utzi nahiko balu, bere lekua, balizko itxaron zerrendako lehenengoak beteko luke. Itxaron zerrendarik egongo ez balitza, atera nahi duen kidea saiatuko da, ahal duen neurrian, ordezkoren bat bilatzen.

Batzordean sartzeko interesa duen edonork haurdanborrada@axular.net idatziaz egin dezake eskaera. Momentuan hutsunerik ez balego eskatzaileak itxaron zerrendan geratuko lirateke. Itxaron zerrenda hau eskaera burutu denaren ordenan osatuko litzateke.

Antolakuntza Batzordeak beregain hartzen ditu aurreikusi gabeko arazoan aurrean hartu beharreko erabakiak.

Antolakuntza Batzordearen ardurak eta funtzioak:

- Donostia Festak-ek antolatutako bileretara joatea eta dokumentazioa jasotzea.
- Beharrezko dokumentazioa Donostia Festak-en aurkeztea.
- Urteroko egutegia eta entsegu egunak zehaztea.
- Kuota adostu eta zehaztea.
- Gurasoentzako zirkularrak prestatu eta hauek igortzea.
- Batzordeko korreo elektronikoa kudeatzea.
- Gurasoen baimenak jasotzea.
- Beharrezko zozketak antolatu eta burutzea.
- Entseguak antolatu eta aurrera eramatea.
- Entsegu egunetan partaide guztiak joan arte ikastolan egotea.
- Jantzien probaketaz arduratzea.
- Material eta jantzietan beharrezko konponketak egitea.
- Parte-hartzaileentzat jantziak prestatu eta eskura ematea.
- Desfilerako garraioa antolatzea.
- Desfile egunerako hamaiketakoaz arduratu eta berau antolatzea.
- Desfilean parte hartzea.
- Desfilearen ondoren, haur guztiak familiekin elkartu bitartean elkartze gunean egotea.
- Jantzien itzulketa kontrola eta jantzi nahiz osagarriak jasotzea.
- Materialen berriz jartzea kontrolatzea.